

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak bi PSIS onartu ditu Tuteran eta Taxoaren bi merkataritzagune handi jartzeko, eta PSIS izendapen bat onartu du Artikako hirugarren baterako

Bi merkataritzagune horiek irekita hasiera batean ehun bat lanpostu zuzen sortuko direla kalkulatu da

Miércoles, 02 de noviembre de 2011

Nafarroako Gobernuak dagokion Udalaz Gaindiko Proiektu Sektoriala (PSIS) onartu du gaur Tuteran eta Taxoaren (Aranguren) bi merkataritzagune handi jartzeko; halaber, PSIS moduan izendatu du Artikako hirugarren merkataritzagune handi baten proposamena ere. Guztira, lehen bi merkataritzaguneek (horien lanak urtebeteko epean hasiko beharko dute) zuzenean ehun lanpostu baino gehiago sortuko dituztela kalkulatu da.

Bi kasuetan PSIS-a bere egunean jendaurrean irekitako aldiak aurkeztutako alegazioak ebatztea onartzen da, eta Gobernuak departamentuek edo kaltetutako erakundeek egindako txostenak aintzat hartu ostean. Haien garapenean Ingurumen eta Uraren zuzendari nagusiaren dagokion ebazpenean ezarritakoa betearaziko da; haren bidez, Plan Sektorial bakoitzaren gaineko Ingurumen Adierazpena egiten da.

Onartutako lehen PSISa Aki Bricolaje España, SL enpresak sustatutako proiektuari dagokio Tuteran brikolajeko merkataritza-establezimendu bat eraikitzeke. Nafarroako Gobernuak iragan martxoaren 14an onartu zuen adierazpena PSIS moduan.

Haren baldintzekin bat etorritik, merkataritzako establezimendu berria A-68aren (lehengo N-232) eskuinaldean kokatuko da, errepide horretako 93. irteeraren parean, A-68ak NA-160rekin egiten duen bidegurutzean, eta azken horretatik sarbidea izanik. Guztira, jardunbideak 11.372 metro koadro inguruko azalera hartzen du eraikin, aparkaleku eta sarbideetarako. Merkataritza-eraikina, berez, guztira eraikitako 3.502 metro koadroko azalarekin zehazten da, eta erakusketa nahiz salmentako azalera erabilgarria 2.902 metro koadrokoa da.

Bestalde, Taxoaren (Aranguren) onartutako PSISa Decathlon España SAUk sustatutako kirolerako merkataritza-establezimendua da. PSIS adierazpena iragan martxoaren 28an onartu zen.

Establezimendua Ekialdeko ingurabidearen (PA-30) alboan eraikiko da, Osasunaren egungo instalazioen mendebaldean. Lursail hori "Atletico Osasuna Klubaren Kirol Hiria" sektoreko lursail batekin bat dator, kirol eta zerbitzu erabilera globala duena, eta guztira 24.427 m² hartzen du.

Proiektatutako eraikina, angeluzuzen formakoa, solairu bakarreko nabe bat da, eraikitako 7.017,21 m²-ko azalera du eta saltzeko nahiz erakusteko 6.120,99 m²-ko azalera erabilgarria. Saltokiaren aurrean, 524 ibilgailurentzako 524 aparkalekutako gune bat jarriko da, eta kopuru horretatik 33 ezinduentzako izango da (% 6).

Merkataritzagune berria Artikan

Gainera, Nafarroako Gobernuak gaur erabaki du Euro Depot España SAU-k Artikan sustatutako merkataritza-establezimendu handi bat ezartzeko proposamena PSIS moduan adieraztea. Hura brikolaje eta eraikuntzarako produktu, gai eta materialen txikizkako merkaturatzeko izango da.

Merkataritzako establezimendua Artika (Berriobeitiko udal-mugartea) eta Berriozar udalerrietan jartzea aurreikusita dago, Iruñeko Iparraldeko ingurabidearen alboan (PA-30), eta McDonald's Berriozar eta Idea Center establezimenduen alboan; ingurabidetik zuzeneko sarbidea izango dute ibilgailuek, eraiki berri den biribilgune batetik.

PSISak eragindako lursailek 12.088 m²-ko azalera hartzen dute, guztira. Aurreikusitako merkataritza-eraikinak, angeluzuzen formakoa, ipar-ekialdeko aldean kokatzen da. Haren aurrean 178 ibilgailurentzako aparkalekua dago, eta kopuru horretatik 12 mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzat da (% 6). Gainera, alboko bide guztietan, Iparraldeko ingurabidean izan ezik, aparkatzen uzten da.

Proiektatutako merkataritza-eraikina solairu bakarreko nabe bat da, eraikitako 7.201,92 m²-ko azalera du eta saltzeko nahiz erakusteko 5.755,13 m²-ko azalera erabilgarria. Eraikinaren kanpoko itxitura aurrez fabrikatutako hormigoizko panel leunez osatuta dago eta estalkiak, hiru isurkikoa da eta % 2ko maldarekin, euskarri gisa balioko du 52 panel fotovoltaiko inguru jartzeko.

Planak, hasiera batean, Berriozar eta Berriobeitiko udalen, Iruñerriko Mankomunitatearen eta tartean dauden Nafarroako Gobernuaren zerbitzuen aldeko txostenak ditu. Horren ondorioz, eta Nafarroako Gobernuak PSIS izendapena egin ostean, espedientea jendaurreko prozeduraren mende geratuko da hogeita hamar eguneko epean.